

INPERIALISMOA SO! NAFARROAKO ESTATUA AURRERA!

Tolosa (2006.6.11)

Espainia eta Frantziako estatuak euren herria eta nazioa goitik behera sortu izan dute. Estatu horiek herri heterogenoak bere menpe jarriaz euren herriak itxuratu dituzte. Aldiz, Nafarroako erreinuaren oinarrian nafar herria zegoen, eta, halaber, nafar herriak erasoerik aurre egin eta bere garaiko premiei erantzun beharrean aurkitu zenean, estatua eraikitzea derrigorrezkoa jo zuen. Behetik gorako eraiketa izan zen, izan ere, herri bezala bizirauteko ez baitzuen beste modurik. Espainia eta Frantziako herri eta estatu inperialisten eraiketa politikoa, eta gure herri eta estatuarena guztiz bide politiko aurkakoak izan dituzte; zeren herria estatutik sortua bada ez du morrontza baino ezagutuko, eta nekez sortuko dira iharduera demokratikoak; eta aldiz, herriak sortu badu estatua herriaren indarra denboran dirau, eta herri politika demokrazian sostengatzeko baliabide hobetoak izango ditu. Biak, bai Espainia, bai Frantzia, inperialistak dira, eta indarrez baino ez dituzte herriak zapaldu eta desagertarazi. Espainiar eta frantziar herriak herri inperialistak dira, estatu inperialistekin bat egiten dutelako; izan ere, inperialistak euren herria goitik behera sortu eta bereganatuta baitaude.

Estatuak, orain arte esandakoarekin, herri borondatek soilik ez direla sortzen begiztatu dugu. Nafarroako erreinua herriak sortu zuen. Eta herria esaten dudanean ez da populazio bezala hartu behar, hau da, kontzeptu kuantitatibo edo estatistiko moduan, entitate berri bat bezala baizik, eta nazio hitza oso egokia deritzot herriaren zentzu hori adierazteko. Nahiz eta jakin, inperialismoak egin duen erabilera sona galdu, zeren horien eskusismo nazionalista behar den kontzientzia nazionalarekin ez baita nahasi behar. Nazioa, beraz, estatua ereiki nahi duen gizateriaren zati bat da, hau da, borondate politikoa duen komunitatea. Nazioa estatu ideien sostengua da, baina ez da bakarrik, bestela, ezingo baita sortu diren estatuak herriak baino lehen azaldu.

Estatu nazioen sorrera noizkoa den jakin nahi izanez gero; seguru aski, X. mendeko bigarren erdiraino jo beharko genuke. Eta, esango bagenu ordurarte nazioak ez zirela existitzen, seguruenik oker arituko gineteke. Herriak euren kultura, ohiko garapen kultural baten barnean, goi mailara igotzen dira. Sasoi horretan, lurraldea, hein batean, kultur- lurra bihurtzen da; "Paisaia zibilizatua", alegia. Kultura eta herriak eraldatutako lurraldearen artean sintesia ematen da. Izan ere, aipu dugun sintesian, naturako legeak ez ezik kultur- lurraren legeak ere osa eta eragiten baitute. Eraldaketa horretan komunika- bideak, populatzeak, ekonomiak, jantziak eta beste faktoreak, landaretza naturalak kulturaren bihurtzea bezalakoak, eragina zuzena dute eta.

Estatu nazioa, bere herriak landu duenetik, probetxu burutsua ateratzen saiatuko da. Izan ere, kolektibitatearen lana eta gaitasuna kontutan hartuko ditu bere azken xedea hobetzeko. Eta, beraz, herriak duen balioa jakiten eta ezagutzen saiatuko da. Beste aldetik, estatuak paisaia seiluak, bere ezaugarriak diren elementuak, jarriko ditu. Estatua ez baita

mugarrietan, gotorlekuetan eta bere zerbitzu dauden eraikinetara mugatzen. Estatua eta herria bat ez badira ere, zenbait esparrutan elkar laguntzen dute. Aldiz, espainiar eta frantziar estatu inperialistek eta Euskal Herriak ez dute ezer amankomunean, gure patrimonioa jatea baitute helburu bakarra.